


The background is a vibrant collage of musical instruments and notes. At the top left is a yellow acoustic guitar. To its right is a xylophone with orange bars and black mallets. Further right is a black electric guitar. On the left side, there is a red trumpet and a yellow cymbal. At the bottom left is a red and yellow saxophone. At the bottom center is a keyboard with red and white keys. At the bottom right are two yellow conga drums. Black musical notes and staves are scattered throughout the composition. The overall color palette is dominated by yellow, orange, and black.

Zaldibiako

# MUSIKA ESKOLA

Matrikulazioa 2024/25



# SARRERA

Musika Eskola zerbitzua urte askotan zehar eman da Zaldibian eta herritarren artean bada musikarako zaletasunik.

Gaur egun 33 erabiltzaile dabilta eskolan eta Ordiziako Musika Eskola da zerbitzuaren emailea.

Maiatzaren 2tik 10era irekiko da 2024/2025 kurtsorako matrikulazioa eta egin den lanketaren ondorioz, berrikuntzekin dator.

Jarraian azalduko dizkizugu....



# MUSIKA, BIZIPOZ

Herritarrek musika gozamenarekin lotzen dute, lagunartearekin, ikasketarekin, baita osasunarekin ere. Bizipoza, hitz batean.

Herrian badira musikan murgiltzeko bideak eta hauek sustatu eta zabaltzea dugu erronka.



# MUSIKA ESKOLAREN ESKAINTZA

**1**

## TAILERRAK ETA KANTU TALDEA

4-7 urte bitarteko haurrak musikarekin lehen harremanetan jartzeko saio ludikoak dira tailerrak. Haur eta gazteen kantu taldeak ere osatu nahi dira.

**2**

## HIZKUNTZA MUSIKALA

Erritmoa, melodia, ahotsa, arnasketa... Instrumentua jotzeko oinarritzko ikasketa da hizkuntza musikala.

**METODOLOGIAN BERRIKUNTZAK**

**3**

## INSTRUMENTUAK

Instrumentua jotzen ikasteko aukera zabala, bai adin txikikoentzat, baita gazte, heldu edota jubilatuentzat ere.

**ESKAINTZA BEREZIAK AURTEN**

**BERRIA!**



# MUSIKA TAILERRAK

**4-5 URTE**

Musika Tailerra 1<sup>o</sup>/2<sup>o</sup>: HH4 eta HH5 mailetako haurrentzat.

Astean 45 minutuko iraupeneko saio bat.

Prezioa: 20 euro/hilean, irailtik abendura (jarraitzeko aukerarekin)

Taldea osatzeko gutxieneko kopurua: 8 haur.

**6-7 URTE**

Tailerra 3<sup>o</sup>/Hastapena: Lehen Hezkuntza 1. eta 2. mailetakoentzat.

Astean 45 minutuko saio bat, 25 euro/hilean, irailtik ekainera.

Astean bi saio, guztira 1,5 ordu, 45 euro/hilean, irailtik ekainera.

Taldea osatzeko gutxieneko kopurua: 6 haur.

# HAURREN KANTU TALDEA

6 urtetik 12 urtera arteko haurrekin (LH1-6) kantu taldea osatu nahi da.

- Astean ordubeteko saioa.
- Prezioa: 16 euro/hilean, irailetik ekainera.
- Taldea osatzeko gutxieneko kopurua: 12 haur.




# GAZTEEN KANTU TALDEA

13 urtetik 18 urtera arteko gazteekin kantu taldea osatu nahi da.

- Astean ordubeteko saioa.
- Prezioa: 16 euro/hilean, irailetik ekainera.
- Taldea osatzeko gutxieneko kopurua: 12 kide.





# HIZKUNTZA MUSIKALA

16 urtera arte instrumentua jotzen hasi ahal izateko derrigorrezko ikasketa da. Oinarrizko ikasketak lau maila ditu.

Taldean egiten den ikasketa da, astean bi saio, guztira 1'5 ordu. Prezioa: 45 euro/hilean, irailetik ekainera. Metodologian aldaketa batzuk txertatuko dira.

16 urtetik gorakoek instrumentua ikasteko ez dute Hizkuntza Musikala egin beharrik.

Kurtso berrian, trikitixa eta panderoa taldean ikasteko, Hizkuntza Musikala ez da derrigorrezkoa izango inorentzat, ezta haurrentzat ere.



# INSTRUMENTUAK



- AKORDEOIA
- BATERIA/PERKUSIOA
- BAXUA
- BIOLINA
- BIOLONTXELOA
- BONBARDINOA
- GITARRA KLASIKOA/ELEKTRIKOA
- KLARINETEA
- PANDEROA
- PIANOA
- SAXOFOIA
- TRONBOIA
- TRONPA
- TRONPETA
- TUBA
- TRIKITIXA
- TXISTUA
- ZEHARKAKO TXIRULA





- Astean 30 min, bakarkako saioan
- Bikoteka elkartzeko aukera, aztertzeko prest
- Prezioa: 57,35 euro/hilean, irailtik ekainera.

# TRIKITIXA ETA PANDERO TALDEA

Instrumentu haven ikasketa sustatu eta herrian taldea osatzeko helburuz, datorren ikasturtean eskaintza berria izango da.

Trikitixa eta panderoa taldean ikasteko aukera:

- Astean ordubeteko saioa.
- Prezioa: 30 euro/hilean, irailetik ekainera
- Norentzat: 7 urtetik gorako guztientzat
- Taldea osatzeko gutxieneko kopurua: 6





# MATRIKULAZIOA 2024,2025

ATE IREKIAK: EZAGUTU MUSIKA ESKOLA BARRUTIK

Maiatzak 6, astelehena:

HIZKUNTZA MUSIKALA: 16:30ean

TXISTUA: 16:30ean

PIANOA: 17:00etan

ZEHARKAKO TXIRULA: 17:15ean

TRIKITIXA: 19:45ean

PANDEROA: 19:45ean

Maiatzak 7, asteartea:

GITARRA: 17:30ean

BIOLINA: 19:30ean

Maiatzak 8, asteazkena:

BATERIA-PERKUSIOA: 16:30ean

EPEA: MAIATZAREN 2tik 10era

LEKUA: KARREANE KULTUR ETXEAN

Eskaintza eta tarifei buruzko  
informazio osoa ere Kultur Etxean.

# ZATOZI!



# MUSIKA HERRIAN

Musika Eskolaz gain, herrian bada musikaz gozatzeko aukera gehiago ere, herritarren ekimenez osatuak asko. Guztiek zabalik dituzte ateak gerturatu nahi duten herritarrentzat, beraz interesatzen bazaizu eskatu informazioa Kultur Etxean.



1

## KANTU ESKEKO TALDEA

Hileko lehen asteartetan 19:30ean biltzen dira hainbat herritar Kimueneen kantuan aritzeko. Neguko kantu eskeko kideak dira, urtean zehar ere kantatzera animatu direnak.



2

## TXANBOLINTERO TXISTULARI TALDEA

Ostiraletan 18:30ean biltzen dira Kimueneen herriko hainbat txistulari entseatzeko. Urtean zehar hainbat kalejira eta emanaldi egiten dituzte.



3

## GOIZTIRI TXARANGA

Urte askotako ibilbidea berreskuratuta, Goiztiri txarangako kideek ere alaitzen digute kalea. Ostiral iluntzetan, bi astez behin, elkartzen dira entseatzeko. Bertara batu nahi?



4

## ENTSEGU LOKALA

Kimuene Kulturguneko gela eta aretoak eskuragarri daude musika instrumentuak entseatu ahal izateko. Antolakuntza adostuta eta instalazioak zainduta, dena da posible!



5

## EKARPENIK?

Musikazaleen ekarpenak ere jaso nahi ditugu, ziur ideia ugari dituzula eta. Ikastaro txikiak, ekimenak... Etorri lasai Kultur Etxera eta gustura jasoko ditugu ekarpen horiek!



Eman mysika zyre  
bizit zari

EMANU BIZIPOZA!

Eman izena!